

## TEKNOLOGIA

# Hasiera askoren kabi@



DIANA FRANCO EGUREN

U rteak dira kabi@-k Durangoko Azokan lehen urratsak egin zituela. Garai hartan, kupula geodesiko ederbaten baitan gogoratzen dut Talaioseko Gorka Juliok, elementu guztien kontra, programa eder bat lantzeko egiten zuen lan itzela. Teknologia eta digitala ez ziren kultur sorkuntzaren gaitzat eta emaitzatatzat errazki hartzen. Jende askok ezagutu genuen elkar. Eta ezagutu nituen eremu fisikoan zein digitalean euskararen eta digitalaren inguruan gogoetatzten zuten egitasmo asko, eta elkar topatzeko beste hainbeste: euskal fedibertsoa, mezularitza taldeak, topaketak, poscastak...

Gorkak kabi@ko lekukoa eman zidanean, eta Izaskun Ellakuriagaren laguntzarekin kabi@n lehen pausoak eman nituenean, digitalak kulturaren zuen eragina ez zen zalantzan jartzen, ez sorkuntza gaitzat ulertzerakoan, ezta kulturaren isla den mundu ikuskeran izan dezakeen eraginean ere. Dena den, dugun panorama digitalak alertan jarri gaitu herritar asko, eremu digital hegemonikoan diharduten botereen dinamikek bizitzak kakazteko duten gaitasuna ulertu dugulako: indarkeria erreproduzitu, adikzio berriak sortu, faltsukeria hedatu, manipulazioa sustatu, isolamendua handitu... Errealitate hori kudeatzen ikasi behar dugu, digitalak zaurgarri bilakatu ez gaitzan. Eta horretaz guztiaz hitz egiten da kabi@n. Egitasmo eta publiko berriak ere inguratu dira: familiak, gizarte hezitzaileak, hezkuntza komunitatea...

Beharbada, hori da kabi@guneko gauza ederrenetarikoa, askorentzat aukera izan daitekeela ezagunak ez dituen egitasmo eta pentsamenduetara inguratzeke. Adibidez, digitala sorkuntza gaitzat hartzen dutenen lanetara. Badelako, digitalari eta teknologiari loturiko zenbait sortzaile. Sortzaile horiek istorioak, soinua, irudia, espazioa, gorputza... harremanetan jartzen dituzte geruza digital eta gailuekin. Eta emaitzak askotarikoak izan daitezke.

Ezagutzen ez ditugun egitasmoetara inguratzeko aukera horietako bat aurten sortzaileen eskutik etorriko dela uste dut. ●

## NAZIOARTEA

# Ukraina, ustelkeriak eta "bake" planak harrapatuta



AXIER LOPEZ

AEk eta Errusiak sekretupean adostu dute Ukrainako gerraren amaierarako balizko akordioa, Kieveko eta Europar Batasuneko agintarien parte hartze eta oniritzirik gabe. Errusia bitartean gerra-eremuan aurrera egiten ari da, geldo baina seguru.

Balizko bake plan horrek 28 puntu ditu, eta ezagutzen denaren arabera, Ukrainak hainbat eremu Errusiaren esku utzi beharko lituzke. Orain arteko negoziazioetan Luhansk, Donetsk, Zaporizhia eta Khersoneko eskualdeak bereganatzeko asmoa erakutsi izan du Errusiak, baina dirudienez azkenean Luhansk eta Donetsk bakarrik eskuratuko lituzke. Biak gune desmilitarizatuak lirateke, eta ez Ukrainak, ez Errusiak ezingo lituzkete tropak zabaldu han.

Esparru militarrean ere baldintza gogorrak leudeke Ukrainarentzat: erdira jaitsi beharko luke bere armada-ren tamaina eta ezingo lituzke eduki arma mota batzuk, bereziki Errusia jo dezaketen irismen luzeko misilak. AEBen laguntza militarra ere gutxitu edo amaituko litzateke, eta ez litzateke onartuko Mendebaldeko inongo troparen hedapenik Ukrainan.

Filtrazioak baino ez dira eta negoziaketek aurrera darraite, baina edonola ere, kolpe gogorra izan da Zelenskiren gobernuarentzat, noiz eta oso egoera zailan dagoen gudu-zelaian izandako porrotengatik eta ustelkeria kasuengatik. Askok eta askotarikoak izan dira azken urteotan, baina azkena bereziki gogorra izan da. Jukutriaren muinean Energoatom dago, Ukrainako lau zen-

tral nuklearrak kudeatzeaz arduratzen den operadore publikoa. Kasua ikeritzen ari diren arabera, zuzendarietako batzuek eroskeria-sistema bat eraiki zuten, operadore publikoarekin kontratuak egin nahi zituzten enpresa guztiei %15eko komisioak ordainarazteko. Sare ustelaren ustezko burua Timur Mindich da. Zelenskiren lagun mina eta bazkidea zenak herrialdetik egin du ihes. Dagoeneko bi ministrok dimisioa eman dute auzi honengatik.

Zelenskik berak oso argi azaldu du egoera nazioari eskainitako azken hitzaldian: "Duintasuna galdu ala funtsezko kide bat galtzeko arriskua dago. 28 puntu zail onartu ala oso negu gogorrari -gogorrera- aurre egin, horrek dakartzan arriskuekin: askatasunik, duintasunik eta justiziarik gabeko bizitza". Bere bazkide nagusiaren presioa sentituta, Europari begiratu dio Zelenskik: "Gure lagun europarrek ondo baino hobeto ulertzen duten Errusia ez dagoela urrun, EBren mugetatik gertu dagoela eta Ukraina dela europarren bizitza eroso eta Putinen planak bereizten dituen ezkutua bakarra".

Etsipenezko mezua dirudi. Izan ere, nahiz eta geografiak dioen Ukraina Europan dagoela, Europar Batasuna ez dago "bake-negoziazioetan". NATO/AEBek hastapenetik babestu eta sustatutako gerra izanik, berau "amaitzeko eskubidea" dute, haien interesen mesederako. Horregatik, planaren ustezko 28 puntu horiek Kieveetik 8.000 kilometrorat idatzi dituzte, ultra eskuinaren esku dagoen bulego obal batean. ●